

tza, premiak ezagutzeko eta bideak eta helburuak markatzeko orduan.

Euskarazko albiste-agentziaren lehen ondorioa euskararen efektu biderkatzailea izango da. Euskararen presentzia soziala erraztu egingo du, noski. Eta, bide batez, zenbait kazetel enpresak ez du kostuaren aitzakiarik atera ahal izango orain, euskara bere orrialdeetan gehitzeko orduan. Eta zer esanik ez, euskarazko egunkariak traba bat gutxiago du honela. ■ *Joan Altzibar.*

Biolentzia eta beldurra

Euskal Herriko biolentzia dela eta ez dela zenbat solas, hitz, eztabaida. Eta zenbat topiko.

Biolentziaren beste alderdia, beldurra da. Zenbat klixe hor ere.

Atzo ikusi nuen ETBko mahaingurua, biolentziaz (85.06.11). Alderdi politikoak ziren solaskide. Mementuko dialektika gorabehera, betikoa. Aldez aurretik genekien alderdikide bakoitzak zer esango zuen. Hori esan behar zuen gainera, horixe esatea tokatzen zitzaion eta.

Hurrengo egunean —kasualitatea, benetan— oraindik argitaratzeke dagoen liburu baten kapitulu bat izan nuen eskuartean. Euskal Herrian hezurmamitzen den biolentziaz da liburua, inkesta batetik abiatuak J. I. R. Olabuenagak burutua. Eskuartean dudak kapituluak «Violencia y Sociedad» du izenburua.

Bi puntuk eman didate atentzioa kapitulu horretan. Bat: kolektibo bezala zeinek du beldurrik gehien gure gizartean? Bi: zeini edo zeri dio beldurrik gehien jendeak?

Lehen puntuaz egin duen azterketan, konklusio honetara iristen da egilea: Gizarte-talde bezala HB-zaleen kolektiboa da beldurra, beldur politikoa, gehien jasaten duena, batipat errepresio politikoaren beldurra. Bagenekien biolentziaren legitimazio sozialean aurrenak zirela HBkoak. Beldurrean ere aurrenak direla jakiteak, agian zerbait esplikatuko du.

Bigarren puntua ere argigarria da oso. Egiaz eta benetan zeri dio beldur jendeak? Beldur hori, motaz-mota, neurtu nahi izan du inkestak. Agertu bezala emango ditut esaldiak eta porzentaiaak:

TEMOR PROXIMO A

	%
—Que Ud. o alguien de su familia sea golpeado en la calle por la policía.....	30
—Que se produzca un golpe militar en España.....	27
—Que Ud. o su familia sea detenido injustamente por la policía.....	23
—Que le toque a Ud. o a su familia verse, casualmente, envuelto en un atentado terrorista o en un tiroteo entre policía y grupos armados.....	22
—Que se desencadene una guerra civil entre los vascos.....	7
—Que sea Ud. o su familia víctima de un atentado.....	7
—Que le pidan el impuesto revolucionario.....	4

Datuak hor daude. Zer egin? Bietako bat: informazioa aintzat hartu eta ondorioak atera. Edota inkesta txarra dela erabaki, eta topikoekin jarraitu. ■ *Joan Larrinaga.*

Euskararen Eguna: binaka?

Berrogeitamar bat urte igaroak dira garai hartako «Euskararen egunak» egiten zirenetik: Arrasaten, Zumarragan, Andoainen. *Euskerazaleek* antolatutik.

Mende-erdi geroago, EKBk (Euskal Kulturaren Batzarreak) berriro antolatu du aurten Euskararen Eguna, Euskal Herri osoko herri guztietan ospatzekoa. Azken urteotan herri batean edo bestean izendatu izan dira horrela euskararen aldeko ekintza eta ospaketak; baina lekuz oso mugatuak izateaz gainera, ez dute antolatzailerik horrelako eguna instituzionaltzeko asmorik adierazi. Dena dela, ideia eta asmo bat zegoen oso zabaldurik herri-erakundeen artean, aipaturiko ekintzetan eta komunikabideetan hainbat aldiz agertu dena: *Euskararen Eguna*, Euskal Herri osoan eta urtero ospatzekoa.

Badirudi EKBk asmo horixe bereganatu besterik ez duela egin. Eta bere ekinbidearen barruan, beste hainbat ekintza-asmo baterakoiren artean, hau ere sartu du: «EKBk erabakirik dauka urtero Kultur sail guztien artean Euskararen eguna antolatzeko eta ospatzea, kultur ekintza herritar gisa. Bere ekintza bateratu nagusia horixe izango du, hain zuzen» («Euskararen plangintzarako oinarriak» in: *Jakin* 34, 1985, 162. or.).

Maiatzaren 3an egin zen Euskararen Eguna. Antolatzailerik adierazia zutenez, euskararen aldeko egun sektorialen (ikastola-